

## **PROZEDURA IREKI BIDEZ DONOSTIAKO AUTOBUS TURISTIKOAREN GARRAIOARI LOTUTAKO OHIKO ETA EZOHIKO ZERBITZUAK ESKAINTZEKO KONTRATUAREN LIZITAZIOA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA**

### **1. LEHIAKETAREN HELBURUA**

Kontratuaren helburua Donostian autobus turistikoaren garraioari lotutako ohiko eta ezohiko zerbitzuak kontratatzea da. SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA, SA enpresak eskaintzen du zerbitzu hori Donostiako Udalak zerbitzua kudeatzeko emandako agindua dela-eta.

Kontratuaren helburua, halaber, kontratuari atxikitako autobusa publizitaterako ustiatzea da, Baldintza Teknikoen Pleguan eta Plegu honetan ezarritako moduan.

Zerbitzuak Plegu honetan eta Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan finkatutakoa betez eskainiko dira eta aplikagarri den sektoreko araudia ere bete beharko da.

### **2. BALDINTZA TEKNIKOAK**

#### **2.1. Funtsezkoak.**

Eskaini beharreko zerbitzuek zerbitzu mota hauek eskaintzeko aplikagarri diren Lurreko Garraioen Antolamendua arautzen duten araudiak bete beharko dituzte; baita Irisgarritasuna sustatzeko 1997ko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak eta legea garatzeko araudiak ezarritakoak ere.

Gainera, ondorengo hauek ere bete beharko dira:

##### **2.1.1 I bilgailua.**

Esleipendunak zerbitzuak eskaintzeko erabiliko duen autobusak bi solairukoa izan behar du, "ingeles" estilokoa eta goiko solairua irekia izango du.

Eguraldi txarra egiten duenerako, kendu eta jarri egiten diren kapota gardenak izan beharko ditu. Horrez gain, megafonia-sistemak izan beharko ditu, gutxienez, lau hizkuntzatan (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez).

Autobusak eserita joateko tokiak bakarrik izango ditu; 50 eta 80 leku artean.

Autobusa 12 metro luze izango da gutxi gorabehera. Zabalean ez da 2,5 metro baino gehiago izango eta gehienez, 4 metro izango ditu garaieran.

Alboetan eta aurrealdean, BUS TURÍSTICO/BUS TURISTIKOA testua izan beharko du ikusteko moduko neurrian, zerbitzua erraz identifikatu ahal izateko.

### **2.1.2 Ibilbidea.**

Honako ibilbide hau egingo du zerbitzuak:

Argentinaren Errepublikaren pasealekutik abiatuko da eta Salamanka pasealekua, Pasealeku Berria, Salamanka pasealekua, Aldamar kalea, Boulevard zumardia, Legazpi kalea, Askatasunaren hiribidea, Santa Katalina zubia, Frantzia pasealekua, Maria Kristina zubia, Gernikako Arbolaren pasealekua, Santa Katalina zubia, Mirakruz kalea, Ategorrieta hiribidea, Nafarroa hiribidea, Zurriola hiribidea, Zurriolako zubia, Boulevard zumardia, Hernani kalea, Andia kalea, Miramar kalea, Askatasunaren hiribidea, Zubieta kalea, Kontxa pasealekua, Satrustegi hiribidea, Funikular plaza, Iruñea kalea, Zumalakarregi hiribidea, Kontxa pasealekua, San Martin kalea, Foruen pasealekua igaroko ditu eta, azkenik, Argentinaren Errepublikaren pasealekura iritsiko da.

Ibilbidea edozein unetan aldatu eta antzeko beste bat egin ahal izango da DONOSTIA TURISMOAK hala erabakita, edota DONOSTIA TURISMOAK esleipendunari horretarako baimena emanda hark eskatu ondoren.

### **2.1.3 Geldialdiak.**

Autobus turistikoaren geltoki nagusia Argentinaren Errepublikaren pasealekuan egongo da. Geltoki horretan geldi egongo da eta autobusa aparkatzeko tokia erreserbatuta izango du.

Gainerako geltokietan ez da denbora luzez geldituko; izan ere bidaiariak jaisteko eta igotzeko behar duten denboran bakarrik egon ahal izango du geldirik. Ondorengo hauek izango dira geltoki horiek:

1. Pasealeku Berrian, ibilgailuentzako aparkalekuaren ondoan.
2. Pasealeku Berrian, Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen eraikinaren ondoan, Pasealeku Berriak San Juan kalearekin bat egiten duen parean.
3. Gipuzkoa plazan, Hondarribiako lineako autobusen geltokian.
4. Frantzia pasealekuan, Iparraldeko tren geltokiaren aurrean.
5. Mirakruz kalean, 18-24 (kontrola egin).
6. Nafarroa hiribidean, Zemorriya kalearekin bat egin baino lehenago, Zurriolarako noranzkoan.
7. Zurriolan, hiri-autobusen geltokian, Birmingham kalearekin bat egiten duen tokiaren parean.
8. Zubieta kalean, 18 (kontrola egin).
9. La Perla: La Perlaren aurrean dagoen aldiriko autobusen geltokia erabiliko da.
10. Ondarreta: Satrustegi hiribidearen hasieran dagoen hiriko autobusen geltokia erabiliko da.

11. Tenisa: Eceiza hotelaren aurrean dagoen hiriko autobusen geltokia erabiliko da.
12. Funikularra, Funikular plazako hiriko autobusen geltokian.
13. Codina: Zumalakarregi hiribideko 23ko autobus-geltokia erabiliko da.
14. Miramar jauregia: Satrustegi hiribidean, oinezkoen babesgunearen aurrean dagoen hiriko autobusen geltokia erabiliko da.
15. Artzain Onaren Katedrala: geldialdia egingo du San Martin kalean ere, katedralaren aurreko hiriko autobusen geltokian.

Geltoki nagusia edozein unetan aldatu ahal izango da, DONOSTIA TURISMOAK hala erabakita, edota DONOSTIA TURISMOAK esleipendunari horretarako baimena emanda, hark eskatu ondoren.

Azpiegitura osagarriek (markesinak edo zutabeak) autobus turistikoaren geltokia seinaleztatzeko aukera ematen duten geltokietan, esleipendunak zerbitzuari buruzko informazioa jarri beharko du. Informazio hori DONOSTIA TURISMOARI eman beharko dio geltokietan jartzeko. Nolanahi ere, jarri beharreko informazioa gainerako lineen neurrira eta eskemetara egokitu beharko da eta DONOSTIA TURISMOAREN oniritzia izan beharko du beti.

Aipatutako azpiegitarik ez dagoen geltokietan, esleipendunak autobus turistikoaren geltokia bere kasa seinaleztatu ahal izango du, betiere, DONOSTIA TURISMOAREN oniritziarekin.

## **2.2. Zerbitzuak eskaintzeko gutxienerako baldintzak.**

### **2.2.1 Egutegia.**

Zerbitzua urte osoan eskainiko da eta gehienez 2 hilabetez (urtarrila eta otsaila) zerbitzurik ez eskaintzeko baimena eman ahal izango du DONOSTIA TURISMOAK, esleipendunak hala eskatuta.

Ondorengo egutegi hau bete beharko du zerbitzuak:

- Goi-denboraldia: martxoaren 15etik azaroaren 15era; zerbitzua egunero. Aste Santua ere sartzen da. Aste Santuaren aurreko asteburutik Pazko Astelehenera arte.
- Behe-denboraldia: azaroaren 16tik martxoaren 14ra: asteburuak, zubiak eta jaiegunak.

Lizitatuzaileek zerbitzuak zabaltzea edo murriztea proposatu ahal izango dute eta horretarako baimena DONOSTIA TURISMOAK eman beharko du, aurretiaz, berriaz eta idatziz.

### **2.2.2. Bidaiak.**

Bidaia bakoitzaren artean, gutxienez 90 minutuko tarte utzita eskainiko da zerbitzua.

Lizitatuzaileek bidaia kopurua handitzea edo murriztea proposatu ahal izango dute, zerbitzuaren maiztasuna handituz edo murriztuz, eta horretarako baimena DONOSTIA TURISMOAK eman beharko du, aurretiaz, berariaz eta idatziz.

### **2.2.3. Ordutegia.**

Egunero eskainiko da zerbitzua 11:00etatik (lehen irteera geltoki nagusitik) 20:00etara (azken irteera).

Lizitatuzaileek gutxieneko ordutegia zabaltzea edo murriztea proposatu ahal izango dute eta horretarako baimena DONOSTIA TURISMOAK eman beharko du, aurretiaz, berariaz eta idatziz.

### **2.2.4. Txartela erabiltzeko baldintzak.**

Erabiltzaileek ordaintzen duten txartelak egun osorako balioko du eta erabiltzaileek eskubidea izango dute egun horretan nahi adina bidaia egiteko. Horrela, erabiltzaileak geltoki batean jaitsi eta ibilbideari nahi dutenean berriro ekiteko aukera izango dute eta egunean zehar nahi adina aldiz egin ahal izango dute hori.

Nolanahi ere, txartelen prezioak autobusean, geltokietan eta erabiltzaileei txartelarekin emandako liburuxketan ondo ikusten den toki batean jarri beharko dira.

## **3. ZERBITZUEN BESTE BALDINTZA BATZUK.**

### **3.1. Erabiltzaileei zenbatekoa kobratzea.**

Esleipenduna arduratuko da DONOSTIA TURISMOAREN kontura erabiltzaileei eskainitako zerbitzuengatik prezioaren/tarifaren zenbatekoa kobratzeaz. Kobratutako kopuruak DONOSTIA TURISMOARI emango zaizkio. Aurretik esleipendunak zerbitzuak eskaintzeagatik eta publizitate-ustiapenagatik eta beste aprobetxamendu ekonomiko batzuegatik zordundutako kopuruak konpentsazio bidez likidatuko dira, Klausula Ekonomiko-Administratiboaren Pleguaren 7.1. Klausulak xedatutako moduan.

### **3.2. Onuradunak.**

Esleipendunak zerbitzua erabiltzen utzi beharko die erabili nahi duten pertsona guztiei, betiere, ondorengo baldintza hauek betetzen badituzte:

- Bidaia bakoitzean eskainitako tokien muga ez gainditzea.
- Zerbitzurako ezarritako prezioa/tarifa ordaintzea.

- Gutxieneko osasun- eta garbitasun-baldintzak betetzea, gainerako erabiltzaileei arriskurik edo deserosotasunik sortu gabe.
- Duten bolumengatik, osaeragatik edo beste zerbaitengatik beste bidaiariei edo ibilgailuari arriskua edo deserosotasuna sortzen dieten objektuak ez sartzea.
- Hezibide oneko eta elkarbizitzako oinarrizko arauak betetzea.

### **3.3. Erreklamazio-orriak.**

Esleipendunak nahitaez bete beharko du, dagokion heinean, Donostiako Hiriko Garraio Publikoko Zerbitzuaren Erregelamenduko 40. artikulua erreklamazio-orriari buruz xedatutakoa. Erregelamendua 2001eko uztailaren 13an onartu zuten behin betiko eta 2001eko abuztuaren 16an argitaratu zuten Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

### **3.4. Langileen betebeharrak.**

Esleipendunaren langileek tratatu egokia eskainiko diete beti bidaiariei eta haiek eginiko laguntza- eta informazio-eskaerei erantzunoko diete.

Ez dute bidaiariei zor zaien errespetuaren aurkako ezer egingo, ez hitzez, ez ekintzaz. Langileak bidaiariekin eztabaidarik ez izaten saiatuko dira, baita haiek kekek eta protestak egiten badituzte ere. Zerbitzua eskaintzen duten esleipendunaren langileak bidaiariekiko errespetuz arituko dira beti eta eman beharreko azalpenak emango dituzte. Adeitasunez emango dituzte ibilbideari edo zerbitzuari buruz eskatzen zaizkien argibide guztiak.

### **3.5. Esleipendunaren beste betebeharrak.**

Lehen azaldutako betebeharrak gain, enpresa esleipendunak honako hauek egin beharko ditu:

- Zerbitzuak eskaintzen hastea, lizitazioaren esleipenaren erabakia jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita, gehienez, 15 eguneko epean.
- Zerbitzuak behar bezalako jarraitutasunarekin eskaintzea Plegu honetan, Klausula Ekonomiko-Administratiboan Pleguan eta aplikagarri diren xedapenetan ezarritako baldintzak betez eta zerbitzua eskaintzeko erabiliko den ibilgailua ondo zainduta eta mantentze-lanak eginda izatea.
- Baimendutako zirkulazioak bakarrik egitea.

## **4. EZOHIKO JARDUERAK ETA ZERBITZUAK**

Esleipendunak, DONOSTIA TURISMOAK alde bakarrez hala erabakita edo hari baimena idatziz eta berariaz eskatu eta hark emanda, ezohiko jarduerak egin

eta ezohiko zerbitzuak eskainiko ditu DONOSTIA TURISMOAK kasu bakoitzerako ezarritako baldintzetan.

Esleipenduna arduratuko da ezohiko jarduerak eta zerbitzuak eskaintzeko hirugarrenekin kontratuak sinatzeaz eta hark jasoko du dagokion prezioa.

## **5. PUBLIZITATEAREN USTIAPENA**

Esleipendunak zerbitzua eskaintzeari atxikitako ibilgailua publizitatea egiteko erabili ahal izango du, kasu bakoitzerako DONOSTIA TURISMOAK baimendutako baldintzetan, aurrez, berariaz eta idatziz baimena eskatuta. Esleipendunak egin beharko ditu publizitatea jartzeko, jarraipena egiteko, berria jartzeko eta kentzeko lanak.

Esleipendunarekin publizitate-kontratuak (hark jasoko du prezioa) sinatzeari kalterik egin gabe, publizitate-kontratu horiek DONOSTIA TURISMOAK edo esleipendunak abiarazi ahal izango ditu eta bateraezintasunen bat badago, DONOSTIA TURISMOAK erabakitakoa lehenetsiko da.

Aurretik aipatutakoari kalterik egin gabe, DONOSTIA TURISMOAK ahalmena izango du, kosturik gabe, DONOSTIA TURISMOARI eta haren kanpainei, produktuei eta zerbitzuei buruzko publizitatea jartzeko esleipendunak beste publizitaterik kontratatuta ez duen kasuetan eta uneetan.